

Laudion, 2024ko ekainaren 28an

Abastos plaza eraistez arduratzen den enpresak amiantoa kenduko du herritarren ongizatean eraginik sortu gabe

Kontrolpean egindako lana izango da eta ez du inongo eraginik sortuko auzokideen, obrako langileen edo gainerako herritarren osasunean

Goizean zehar Abastos Plaza eraistez arduratzen den enpresak fibrozementua duen instalazio baten estaldura isolatzailea kenduko du, aglomeratzaile eta amianto zuntzez osatuta dagoelako.

Kontrolpean egindako lana izango da eta ez du inongo eraginik sortuko auzokideen, obrako langileen edo gainerako herritarren osasuna eta ongizatean. Honelako materialak eraisketa lanetan agertzea ohikoa da, bere ezaugarri isolatzaile, indartzaile eta suaren kontrakoengatik 2002 urtea baino lehenago erabiltzen zelako, orduan debekatu zen bere erabilpena eta merkaturatzea langileentzako eragiten zuen arriskuagatik.

Eraiketaz arduratzen ari den enpresa Amianto Arriskua duten Enpresen Erregistroan (RERA gaztelaniaz) errolatuta dago, eta ahaldunduta dago hondakin hau kudeatzeko beharrezko neurriak abiatzeko.

Udalak lasaitasun mezua helarazi nahi die inguruko auzokideei, eraisketa lanak burutzen ari den enpresa beharrezkoak diren neurri guztiak ezartzen ari delako beraien segurtasuna bermatu dadin.